

"Antxon eta Gaizka" bide berri bat

PAINEko DORRE ZENTRALEAN



IDE hau aurreko hilabeteetan sei lagunek bitzako ilusioaren gauzatzea izan da, inondik inora pentsatzen ez bagenuen ere, 15 egunetan irekia. Painera iritsi ginenean oso zaila izango zela iruditu zitzaigun.

Andoni Areizaga

eta ia bidearen erdia egin zegoen. Ordurarteko luzeak lan handikoak izan ziren, indartsu egonez gero, librean behartu zitezkeen pitzadura itsuak, A2-6b.

Handik aurrera, pitzadurak ezin hobekak ziren eta nahiz eta bertikalagoa izan harkaitza bikaina zen oso. Hurrengo egunean Josetxok eta Andonik beste bi luze ireki zituzten, lehenengo artifizialean A2-6b eta bigarrena librean, erraz aseguratzen zen 6-A gozagarri bat.

Ordurako 400 metro ziren soketan jarri zirenak eta bide amaiera ikus zitekeen. Jaisterakoan bloke handiren bat erori izango zen, ez genuen ikusi baina zurrundiloa ikaragarria izan zen; isil-isilik eta ahal bezain laster jaitsi ginen, ahaztu nahian bezala.

Gutako bik eskalatzen gintuen bitartean beste biok txiletarren basera jaitsi eta materiala eta janaria igotzen genuen gordetegira. "Atsedenaldirako" egun horretan jan eta deskantsatu egiten genuen gure lagunak katalajeoen bitartez ikusten genituelarik.

Eguraldi txarra

Eguraldi txarrak oztopatutako saiakera baten ondoren, Martinek eta Gerardok bigarren eguna zuten jarraian goizean goiz jaikituko. Gerardori, denori bezala, gero eta gehiago kostatzen zitzaion goiz jaikitzea baina Martinek berehala espabilarazten zuen, haizerik gabeko egunak aprobeztatu beharra zegoen, gero ere izango genuen lotarako astirik. Bi luze gehiago ireki zituzten, gehiena librean. Haizea zebilen, hotza, baina Gerardok zigarro bat itzali eta bestea pitzen zuen bitartean bi parabolt sartu zituen biltokian, soka finkoa jarri eta beheara jaitsi ziren. Tximak korapilatuta eta zintzo aurpegia zekarten biek, haizeak gogor astindu zuenaren seinale, huyuyuyuy!

Haize gogor horrekin esnatu ginen, azkenean eguraldi txarra. Puerto Natalesera jaisteko aukera paregabea zela ikusirik, egun hori janaria erosteko aprobeztatu genuen eta baita parranda txiki bat egiteko ere, nerbioak zerbait lasaitzeko. Afaltzen "Sangre de toro" izeneko ardo botila bana edan eta gero, goizeko hiruretan rokodromo batean aritu ginen eskalatzen hurrengo egunean eguraldi txarra egingo zuelakoan, baina bai zera! Eguzkia! Eta haizerik gabe zetorren gainera.

Lehenengo autobusa hartu eta ilunabarrean iritsi ginen japoniarren basera. Traste guztiak prestatu eta goizeko hiruretan gora. Oraingo honetan lauk igotzen, bidea bukatu eta tontorreraino iristeko asmoz. Bederatzigarren luzeraino jumarrekin igotzen eta "Bonington" era iristeko hiru luze gelditzen zitzaizkigun, luzeak, teknikoak eta motelagoak. Eskalada bertikala zen baina zoragarria, luzeak neketsuak baina ez zailegiak, A2-6b+.

Lehenik eta behin, lekua; Pazifikoa begira, gutxi bisitatua, erabat urrunda eta giro berezi batean murgildua. Ondoren, paretera hurbiltzeko genuen lau edo bost orduko bidea; material eta sokaz josiak etengabeko "gora eta beheara" batean. Eta azkenik, eguraldi onaren zain zegoen jendearen jardunak baieztatzen ziguna; han beti eguraldi txarra egiten duela, alegia.

Astebete lehenago Fabiok eta Eliok petatea galdu zuten 15 kilometro/orduko haize boladen ondorioz, bertan zeramatan material guztia galduz. Guk soka finkoak eraman genituen eta haizerik ez zegoen eskalatzea pentsatu genuen. Zorte handia izan genuen eta aurreneko egunean materiala eraman, paretaren sarrera aurkitu eta gordetegia kokatzeko edota vivac-en bat egiteko leku seguru bat topatu genuen.

Bigarren egunean, Josetxo eta Gerardok egin zuten lehenengo erasoaldia elurra belaunetaraino zutelarik, eta sei ordu baino gehiago pasa zuten baseraino iristeko. Materiala eraman eta soka estatikoa jarri, lehendabiziko luzea ireki zuten, 70 metrokoa (III-IV).

Martin eta Andoni

Hurrengo egunean Martin eta Andoni igotzen goizean goiz, elur gogortua zapalduz. Hotza egiten zuen, lainoak ere ugari, baina ez zuen ia haizerik jotzen. Bi luze ireki zituzten artifizialean A2-6b. Iltze asko eta irteerak librean. Zeharkaldi txiki bat egin ondoren, bide zuzena gelditzen zitzaigun "Bonington" eraino, 600 metro gorago.

Hurrengo egunean eguraldia ez zen oso segurua baina Josetxo eta Andonik pentsatu zuten haizerik ez zebilela eta ezin zela horrelako egun bat galdu. Hurrengo bi luzeak librean joango zirela uste genuen, zerbait etzan egiten zelako baina pitzadura itsua zen eta lan handia eman zuen. Egun horretan 20 metro bakarrik ireki genituen eta orduan konturatu ginen oraindik eguraldi oneko egun asko falta izango zitzaizkigula.

Ondorengo txanda, Gerardo eta Martinena zen. Lana gogor egin eta gero, bi luze eta erdi ireki zituzten





Berandutu egin zitzaigun eta ez genuen tontorreraino iristeko denborarik izan baina soka finkoak utzi eta zoriontsu jaitsi ginen egun eguzkitxu eta euliz betetako bat "bakarrik" falta zitzaigula pentsatuz.

Oso nekatutak

Hurrengo egunean oso nekatuta geunden, 21 ordu segidan eskalatu genuen eta, eguraldia oso segurua ez zenez, egun batez atsedean hartu eta itxarotea erabaki genuen. Basean festa zegoen, jende guztiak gailurra egin baitzuen. Brasildarrak, Rigloseko Toñorekin batera, "Bonington" etik igo zuten, mexikar batek eta gida argentinar batek "Monzino"tik eta Steve Sneider eta bere emazteak "Torres del Sol" delakotik iparreko dorretik.

Biharamunean berdin jarraitzen zuen eguraldiak: haizeak gogor jotzen zuen. Antxon eta Gaizka iritsi ziren egun horretan. Hau poza! Besarkadak, zorionak eta baita pena piska bat ere, izan ere ilusio handia baitzuten biek bide berriaren zati bat irekitzera garaiz iristeko.

Baina kontuak kontu, oraindik ere izen zehatzik ez zuen bide berriaren lehen errepikapena egitea erabaki zuten. Hainbat izan pentsatu genituen: Gora-behera, Kaixo Kondor, Sol y moscas ... baina azkenean, beste izen bat izan zuen.

Antxonek eta Gaizkak Argentinan bizitakoak kontatu zizkiguten. Eguraldi ona izan omen zuten baina glaziarrak eta errimaia oso irekiak zeudenez, ezin izan zuten Fitz Roy-era igo. Leku harekin erabat maiteminduta etorri ziren eta berriro saiatuko zirela agindu zuten. Zailtasunak zailtasun, Aguille de Guillemet izeneko mendira igoera azkar bat egin omen zuten. Zailtasun ertaineko bidea, luze zail samarrak zituena baina ederra. Painera aurrerago beraien bidea izango zena egitera zetozen, "Antxon eta Gaizka" bidea.

Gau izartsu bat izan ondoren, goiz jaiki ginen seiok. Gure asmoa, hornituta geneuzkan bidearen 600 metroak jumareatzea zen, gailurrera iritsi eta ondoren, rapelatz, aurretik finkatutako material guztia jasotzea. Beraien helburua berriz, luze-luze, bide osoaren lehen errepikapena egitea zen.

Goizeko 8.00ak inguruan paretaren oinera geunden eta 11.00etan "Bonington"en. Martinek bide honekin paralelo zihon azken luzea ireki zuen. V mailako luze dotorea.

Gailurrera 13.30etan iritsi ginen, harkaitza erdipurdikoa zen eta V-V+ko pausoak topatu genituen. Gailurrean bero egiten zuen, zerbait jan, edan eta zigartotxo bat ere erre genuen. Sinestezina zen hura, 15 egunetan gailurra egin genuen eta Pirineotan geundela zirudien, manga motzean eta eguzkia hartzen.

16.00etan jaisten hasi ginen. Rapelen bat berriro hornitu genuen eta sokak, iltzeak eta

▲
Ezker aldean.
*Gerardo, Martin, Andoni eta
Jose txo morrenako bibakian
Goian.*
*Paineko Dorreak, laguna
amargatik
Behan.*
Andoni, 5. luzean (A2+, 6b+)
▼

gainerako material finkoa jasotzen hasi ginen. Parabolak besterik ez genituen utzi.

19.00ak inguruan Antxon eta Gaizkarekin egin genuen topo, bederatzigarren luzean. Oso azkar egin zuten ordurarteko igoera. Bideaz eta oraindik igotzear zutenaz hitz egin genuen. Ilundu baino lehen bukatu nahi zuten baina lan handiko hiru luze geratzen zitzaizkien egiteko. Soberan genuen janari eta ura eman genien eta guztiok behera iristean jai handia egingo genuela esanez agurtu genuen elkar. Egindakoa ospatu beharra baitzegoen!

Paretaren oinera 22.00etan iritsi ginen.

Morrenaraino gauz rapelatu behar izan genuen luze bakoitza hornituz. Bukaezina izan zen. Ez zen ideia ona izan handik jaitea, Martinek esan zigun baina...

Behera, morrenara, 3.30etan iritsi ginen eta baseko kanpamenturaino hitzik egin gabe joan ginen. 26 orduko lan gogorra izan zen eta leher eginda geunden.

Mahaian Getik prestatutako arroza geneukan gure zain eta ardo txiletarrak lagundurik gure igoera ospatu genuen. Jaten ari ginen bitartean loak hartzen gintuen baina zoriontsu geunden.

Hurrengo egunean

Hurrengo egunean Antxon eta Gaizka iristeko zain geunden. Brasildar batek Dorre Zentralean goizeko 11.00k inguruan elur eta lur jausi bat izan zela ohartarazi gintuen. Ez genuen pentsatu ere egin gure lagunak harrapatuko zituenik, ordu horretan gailurrean izango zirela pentsatzen baikenuen. Hala ere, bazkaldu eta gero, eguzkia lagun genuela, ongietorria ematera gorantz irten ginen. Elur jausia ikusi genuenean Martin gaizki pentsatzen hasi zen,

urduri jartzen hasi ginen eta laster, handik nahiko hurbil, Antxon aurkitu genuen baina berandu zen, ezin izan genuen ezer egin.

Ilundu artean Gaizkaren bila aritu ginen baina ez genuen ezertxo ere lortu. Kanpamentu basera jaitsi ginen eta han elkartu ginen eskaltzaile guztiak, zer esan ez genekiela, triste eta lur jota. Hori da zoritxarra.

Gero lau egun luze egin genituen Gaizkaren bila, orain aipatzea ere merezi ez duen arazo burokratiko ugariarekin. Baina, hala ere, bertakoengandik eta han zeuden guztiengandik jaso genuen laguntza ez dugu inoiz ahaztuko: erreskate lanetan burubelarri aritu ziren eskaltzaile brasildar, estatu-batuak eta madrildarrak; Toño eta Geti; Chilen dagoen Espainiako diplomazia guztia, Fairen jauna bereziki; erreskate talde guztiak eta bere semeak izan bagina bezalaxe tratatu gintuzten Explora hoteleko guztiak, besteak beste.

Esperientzia ahaztezina izen zen, ilusioz betetako bizipena baina inoiz berreskuraturiko ez ditugun bi lagun galdu genituen. Mendian izango ditugu betirako. Aupa tigres! ☐



ARGAZKIAK: ESPEDIZIOA

CRONOLOGÍA DE LA EXPEDICIÓN

■ **31-1 / 2-2-98:** viaje Bilbo, Madrid, Santiago, Punta Arenas, Puerto Natales.

■ **3-2:** Traslado de Puerto Natales a Laguna Amarga. Subimos con seis caballos cargados de material hasta el Campamento Torres. Nos acercamos a pie hasta el Campo Japonés llevando material de escalada, algo de comida y tiendas.

■ **4-2:** Reconocimiento de la vía y su aproximación. Hace mal tiempo, llueve un poco. Establecemos el primer depósito de material en el vivac de la morrena (1 hora desde el Campo Japonés).



■ **5-2:** Primer contacto con la pared. Abrimos un largo y dejamos material en la base.

■ **6-2:** Andoni y Martín abren dos largos más R-3.

En los días siguientes abrimos otros seis largos. Unos escalan y los otros portean comida y material del Campamento Torres al Japonés y, por último, hasta el vivac de la morrena.

■ **14-2:** Bajamos a Puerto Natales a reponer fuerzas y hacer compras.

■ **15-2:** Regresamos a las 21 horas al Campo Japonés.

■ **16-2:** A las 3 de la madrugada subimos los cuatro, porque hoy puede ser el día de cumbre. Remontamos 400 metros de cuerdas fijas que hay desde la base hasta la R-9.

Les toca a Josetxo y a Andoni trabajar. Todavía quedan cuatro largos por abrir. Hacia las 18,30 Josetxo llega al final del Torreón e instala dos *parabolts* de reunión y desciende. Estamos en la R-12. Descendemos los cuatro hasta el Campo Japonés después de 21 horas de trabajo.


■ **17-2:** Hace medio malo y aprovechamos para descansar. Llegan al Campo Japonés Antxon y Gaizka tras su estancia en Chalten al Campo Japonés.

■ **18-2:** Tres de la madrugada. Nos levantamos los seis. Antxon y Gaizka vienen con nosotros a la vía y piensan realizar la primera repetición. Subimos por el corredor que va directo a la Torre Norte, que es mucho más seguro, ya que el corredor se encuentra habitualmente en mal estado.

Andoni, Josetxo, Martín y yo remontamos las cuerdas fijas y Antxon y Gaizka suben escalando. Llegamos a la R-12 a las once la mañana. Hacemos las cordadas, dejamos parte del equipo y subimos con lo imprescindible hasta, primero enlazar con la Bonington-Whillans en la R-13 y luego continuar hacia la cima en siete largos más. Martín no corre, vuela, y a las 13,30 alcanzamos los cuatro la cima. Hacia las 16 horas empezamos a rappelar, todavía tenemos que limpiar toda la vía de las cuerdas fijas y de los pitones que hemos ido dejando.

A las 18,30 nos cruzamos bajando con Antxon y Gaizka a la altura de la R-9. Han escalado muy rápido. Les pasamos algo de comida y agua.


Hacia las 21,30 horas llegamos a la base. Hemos dejado limpia la vía y nos



▲
A la izquierda.
Andoni y Martín, camino de la cima
Arriba.
Andoni en el largo 11 (A2, 6A)
En el centro.
Martín y Gerardo jumareando en el día de la cima
A la derecha.
Gerardo, Martín y Andoni, rappelando desde la cima, en la R-13
▼


disponemos a bajar por el corredor. Ya de noche y con los frontales ponemos la máxima atención porque este tramo se encuentra muy mal debido a las altas temperaturas. Vamos montando rappeles de 100 metros y dejamos instalados 150 metros de cuerda que quedan abandonados. Llegamos a la base del corredor a las 2,30 de la madrugada, tras cinco horas de descenso por la mierda del corredor. Llegamos al Campo Japonés a las 5 de la madrugada tras 26 horas de esfuerzo. Estamos rotos, pero contentos. Cuando está ya amaneciendo nos metemos al saco.

■ **19-2:** Nos levantamos a las 11. Martín y Andoni ya están en pie y charlamos con los amigos: felicitaciones y esas cosas. Hacia las 12,30, de la montaña baja Alex, uno de los brasileños, que ha ido a hacer la Torre Sur. Él nos cuenta lo del alud: ha visto una enorme nube de polvo y escuchado un ruido ensordecedor en la Torre Central. No nos preocupamos demasiado porque suponemos que nuestros compañeros deben de estar camino de la cima a la hora en que Alex ha presenciado el alud. Desgraciadamente, nuestras suposiciones estaban muy lejos de la realidad... □




FOTOS: EXPEDICION

TORRE CENTRAL DEL PAINE Cara: NW Vía: "ANTXON ETA GAIZKA"



FICHA TÉCNICA



■ Vía abierta por

✓ Andoni Arizaga, Josetxo Rodriguez, Gerardo Telletxea y Martín Zabaleta, el 18 de febrero de 1998.

■ **Longitud:** 600m. **Dificultad:** A2+, 6b/c

■ Material utilizado

- ✓ 500 metros de cuerda estática.
- ✓ 2 juegos de microfrends (alliens) 1 al 4 incluidos.
- ✓ 2 juegos de camalots del 0,5 al 4 incluidos.
- ✓ 1 juego de fisureros (stoppers).
- ✓ 15 expreses.
- ✓ Pitones variados, uves, lost arrow, knife blades, universales, aproximadamente 30 unidades en total. También algún bird peak y pitonisa plana.
- ✓ Ganchos.
- ✓ Parabolts 8 de diámetro y equipo de perforación (manual y automático a batería).
- ✓ Material de hielo para la aproximación a la base.

■ Descripción

✓ La vía transcurre por un sistema de diedros y fisuras sobre un excelente granito. Todas las reuniones han quedado equipadas con dos parabolts de 8 de diámetro, con mosquetones en ambos y entre largos ha quedado también algún parabolt de progresión de 8, que fueron empleados para fraccionar la cuerda estática durante la apertura.